

0. SARRERA

EAeri zegokionean LAAek adierazi zutenaren bidetik, Goierrik gaur egun duen lurralde-eredua hainbat motatako faktoreren bidez osatu da. Prozesu horretan zeregin nagusia izan dute udal-plangintzek eta sektore-politikek. Batzuek zein besteek lurraldearen antolamendu osorako dituzten begi-bistako mugak esparru horretan diharduten erakunde eta eragile guztiek onartzen dituzte. Horrezaz gain, udalaz gaindikoak izango diren antolamendurako jarraibideen premia adierazi dute, bien politikak orientatzea helburu hartuta.

LAL eta artezpideak onartuz geroztik badago eremu funtzionalaren lurralde-antolamenduari heltzea ahalbidetzeko moduko lege-markoa.

Hemen aurkeztuko dugun plana analisi eta azterketan oinarritutako prozesu luze baten emaitza da. Zeregin horri orain hamar urte ekin genion eta aipatutako mugak gainditzen ahalegindu gara.

Honakoak dira agiri hau lantzerakoan kontuan izan ditugun oinarritzko ideietako batzuk: lurralde-ingurune zabalagoak eta horietan garatzen diren dinamika eta prozesuak aintzat hartzeko premia, presako beharrak (garrantzitsua denarekin nekez etortzen direnak bat) gaindituko dituen epe luzerako ikuspegia hartzea eta lurralde osoa errealitatea aztertzeko eremutzat eta aukera berrietarako markotzat jotzea.

Planak ondorengo osagaiak ditu: a) Azterketak eta informazio-planoak, b) Planaren azalpen-memoria, c) Ekonomia- eta finantza-azterketa, d) Gauzatzeko programa eta e) Antolamendu-plano eta -arauak. Berorren egiturak, berriz, bi liburuki eta plano-bilduma bat (informazioaren eta antolamenduaren ingurukoak) ditu.

I. liburukian azalpen-memoria hartu dugu barne, baita egindako gaikako azterketen informazio-laburpena, ekonomia- eta finantza-azterketa eta gauzatzeko programa. II. liburukian, aldiz, antolamendu-arauak eta udal-plangintzaren gaineko eraginen agiri osagarria.

Memoria hiru kapitulutan antolatu dugu eta horiek, nolabait ere, plana prestatzeko egindako prozesu metodologikoa islatzen dute.

- Plana egiteko oinarriak.
- Eredua prestatzeko oinarriak.
- Eremu funtzionalaren lurralde-eredua.

Lehenengo kapituluan plana egiterakoan erreferentzia gisa hartu ditugun oinarri legal, administratibo eta teknikoak aipatu ditugu. Gainera, LALan aurreikusitako lurraldearen antolamendurako tresnen izaera aztertu dugu eta lurraldearen zatiko planek berariaz barne hartu behar dituzten zehaztapenak xehatu ditugu. Planaren iraupenaren, prestatzeko prozesuaren eta erakundeen parte-hartzearen inguruko beste zenbait alderdi era izan ditugu mintzagai.

Bigarren kapituluak prozesuaren aurreko faseetan gaiaren inguruan egindako azterlan eta agirien (horiek bat datoz LALaren 12. artikuluan adierazitako azterketekin) inguruko informazio-laburpena hartzen du bere baitan. Modu sistematizatuan baloratu ditugu bertan eremu funtzionalaren lurralde-antolamenduari dagozkion hainbat alderdi. Lurraldeari dagozkion zenbait gai ere landu ditugu bertan, ikuspegi bikoitzetik: lurralde-euskarria eta ingurune fisikoa, komunikazio, garraio eta zerbitzu-azpiegituren sareak, asentamenduak, gizarte- eta ekonomia-egitura eta etorkizuneko joerak. Horiek ezinbesteko erreferentzia dira eredua ulertu ahal izateko. Informazio horren guztiaren laburpen gisa, aipatutako eredua prestatzeko kontuan izan diren alderdiak aipatzen dira.

Gaur egungo egoerari buruzko informazioa eskaintzen eta horren inguruko diagnostikoa egiten duen laburpen hori, LAAetako eredua eta etorkizuneko joerak izan dira planaren lurralde-proposamena egiteko oinarri. Proposamen hori lurralde-ereduaren bidez zehaztu dugu.

Hirugarren kapituluak eremu funtzionaleko oinarritzko helburuak eta lurraldearen antolamendurako eredu integratua biltzen ditu. Ereduek hainbat estrategia zehazten

ditu esku-hartzearen esparru bakoitzerako (ingurune fisikoa, asentamenduak eta harremanetarako sistema), baita horietarako zenbait proposamen partikular ere. Horien artean azpimarratzekoak dira eragiketa estrategikoak, eredu osatzeko izaera egituratzailea dela eta.

Ereduak, halaber, hirigintza-antolamenduak aintzat izan beharko dituen zenbait irizpide, printzipio eta arau orokor biltzen ditu, baita LALaren 12. artikuluan eskatutako gainerako zehaztapenak ere. Eduki eta proposamen horiek ondorengo azpikapituluetan garatu ditugu:

- 3.1. Antolamendurako oinarrizko irizpideak eta helburuak.
- 3.2. Goierriko Eremu Funtzionalaren lurralde-eredua.
- 3.3. Ingurune fisikoaren antolamendua.
- 3.4. Ereduaren azpiegiturak. Harremanetarako sistemak eta zerbitzuenak.
- 3.5. Asentamendu-sistemak
- 3.6. Eragiketa estrategikoak eta plangintzak bat etortzea.

Planaren euskarri grafikoa informazio- eta antolamendu-planek osatzen dute, eta ondorengoak dira:

Informazio-planoak

- I.1. Eremu funtzionalaren lurraldea. Hipsometria
- I.2. Asentamendu posibleetarako espazio-gaitasauna duten eremuak.
(haranak, muinoak eta hegala)
- I.3. Ingurune fisikoaren informazio-laburpena. Hori antolatze ko baldintzak eta bestelako oinarrizko alderdiak.
- I.4. Gaur egungo komunikazioen sarea eta udalaz gaindiko ekipamenduen kokapena.
- I.5. Gaur egungo asentamendu-sistema. Bizitegi, industria eta hornidurarako lurzorua k.

Antolamendu-planoak

- 01.1 Ingurune fisikoaren antolamendua. Babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak.
- 01.2 Ingurune fisikoaren antolamendua. Antolamendu-kategoriak eta hainbat erreferentzia.
- 02.1 Garraio eta komunikabideen sarea
- 02.2 Zerbitzuen oinarrizko azpiegiturak.
- 03 Asentamendu-sistema. Espazio-betetzearen ezaugarri orokorrak. Bizitegi, industria eta hornidurarako lurzoruak.
- 04 Udalaz gaindiko ekipamendu-sistema eta espazio libreak.
- 05 Plangintzarako irizpide orokorrak eta hiri-garapenaren esku-hartze estrategikoak.
- 06 Lurralde-ereduaren eskema.
- 07 Eremu funtzionala bere ingurunen integratzea.

LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKO LEGEAREN BETETZE FORMALA.

Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren agiri hau bete-betean dator bat 1990/4 Legeak, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, batez ere 12. artikuluan, gisa honetako figuretarako eskatzen dituen eduki eta agiriekin. Ikus dezagun nola egokitzen den horretara:

- 1.- 1.a, b, c, e, eta f ataletan aipatutako zehaztapenak horiei dagozkien AZALPEN-MEMORIAko kapituluetan eta PLANOETAN bildu dira. Zehatzago esateko ondorengo agiri, plano eta epigrafeetan:
 - Gaur egungo egoeratik abiatuta egindako helburu nagusien definizioa INFORMAZIO LABURPEN, BALORAZIO ETA DIAGNOSTIKOko agirian ez ezik, AZALPEN MEMORIA izeneko agiriaren enuntziatu orokor eta partikularretan ere agertzen da. Hori guztia aurrez, LZPa prestatzeko prozesuaren aurreko faseetan, lurraldeari buruzko informazioa lortzeko egindako lan handitik eratorritakoa da.
 - Azpiegitura handien euskarri diren espazioak, berriz, dokumentazio grafikoan zehaztu dira erabat, batez ere 02.1 eta 02.2 planoetan. Horrezaz gain, AZALPEN MEMORIAren baitan dagozkien kapituluetan hartu dira barne.
 - Eremu funtzionaleko interes komuneko ekipamenduetarako proposamenak dokumentazio grafikoan zehaztu dira erabat, batez ere 04 zenbakia duen planoan, baita AZALPEN MEMORIAren baitan dagozkion kapituluetan ere.
 - Eremu funtzionalean birmoldatu, leheneratu edo birgaitu behar diren espazioen definizioa ere dokumentazio grafikoan hartu da barne, hain zuzen ere, 05 eta 06 zenbakiak dituzten planoetan. MEMORIAn dagokien kapituluak adierazi dira programazioaren eta ekintzarako neurrien inguruko erreferentzia orokorrak, proposamenen hitzez hitzeko azalpenaz gain.
 - Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzetarako nahiz industrietarako

lurzoruaren inguruko proposamenen kuantifikazioa MEMORIAN ez ezik, EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETAN nahiz GAUZATZEKO PROGRAMAN adierazi dugu.

2.- 1.d eta g ataletan adierazitako zehaztapenei dagokienez:

- ANTOLAMENDU ARAUAK izeneko agirian lege-terminoen bidez adierazi ditugu antolamenduaren edukiak (berorren irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak), baita hori aplikatzeko baldintzak eta bere izaera loteslearen irismena ere, batez ere II eta VI Kapituluetan. Horrezaz gain, VII Kapituluari, berariaz ezarri ditugu hirigintza-antolamenduak LZPa aplikatzeko erreferentziak.
- Lurraldearen Antolamendurako Azterpideek egindako zehaztapenak garatzeko funtsezko eta ezinbesteko diren irizpideak, printzipioak eta gainerako edukiak, eremu funtzionala honi dagozkionak, LZP honetako antolamendurako proposamenetan bildu ditugu. Horiek berariaz aipatu ditugu MEMORIAN eta PLANOetan. Gainera, zehaztapen normatibo gisa gehitu ditugu ANTOLAMENDU ARAUAK izeneko agirian, batez ere II eta VI Kapituluetan, horietako bakoitzari dagokion irismena adieraztearekin batera.

3.- Goierriko Eremu Funtzionaleko LZParen agiri honek lurraldearen antolamendu bati dagozkion zehaztapen guztiak biltzen ditu, baita, horrenbestez, hirigintzakoak ere, lurralde-eredua osatuko dutenak. Horien sintesi grafikoa 06 zenbakia duen planoan jaso dugu.

4.- LZP honetako edukiak prestatzerakoan, uneoro saiatu gara toki-entitateei dagokien eskumen-eremua errespetatzen. Araudiari dagokionez, esku-hartzeak garapen-plangintzaren norabidean bideratzen ahalegindu gara. Horiek batez ere udalaren mailara bideratzen saiatu gara, horietan baitute eskumen horiek aplikazio-eremurik handiena.

5.- LZP honen agiriak bete-betean datoz bat Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak eskatutakoekin.